

Osteguna, 2013/03/14

[Kronika.net](#)

[Argazkiak](#)

[Elkarrizketak](#)

[Jasota Bezala](#)

[Inkesta eta Eztabaida](#)

[Zerbitzu eta Helbideak](#)

[Agenda](#)

[Kronika Bereziak](#)

[Dokumentuak](#)

[Egin Bazkide](#)

**AURREKO
EDIZIOAK**

Aukeratu nahi duzun data

2013



martxoa



13



BILATU

[Kronika Zaharrak](#)

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



KRONIKA.NET



HERNANIKO IBILBIDE SAREA - SAGARDOTEGIAK (IBILBIDE

Sagardotegi, baserri eta sagarrondo artean, Urumea bazterrean

Hamaika ikusteko jaiok garela-eta, denak ezagutzeko 11 ibilbide aurkeztu zituzten azaroan Hernaniko Udalak, Aranzadik eta Mendiriz Mendik. Hiru motatako ibilbideak dira: urdinak (denek egiteko modukoak), arrosak (homologatuak), eta moreak (freeriderrak, hau da, markatu gabekoak). Urdin batekin hasiko gara, Hernaniko paraje esanguratsuenetako batzuk ezagutzeko.

2013/03/14 - Osteguna

Sagardotegien ibilbidea da proposatzen den 11 ibilbideetako bat. Ibilbide erraza, bi ordutakoa, denek egiteko modukoa. Eta Hernaniko paraje esanguratsuenetako batzuk erakutsiko dizkiguna: sagardotegiak, sagarrondoak eta Urumea ibaia.

Portuan lonja, Urumean zubia, eta aurrerago, Cométe sarekoen oroigarria

Ibilbidea Portu auzoan hasten da, Lonja izeneko etxetik gertu (A). Garai batean lonja zen etxea da hau. Izan ere, Hernaniko baso eta burdinoletatik ateratzen zen egurra, ikatza eta burdina Donostiara eramateko modu bakarra, Portutik pasatzen ziren gabarrak erabiltzea zen. Aurrerago, Urumea ibaiaren (D) ertzetik pasatzen da bidea, eta puente kolgantea (E) ikusi daiteke; bakarra, gaur egun, azken uholdeek eraman egin baitzuten Elorrabikoa. Baina lehenago sartu zen zubi hau Hernaniko historian. 1978ko estropadak ikusteko (Hernaniko bandera), jende asko pilatu zen zubian, eta pisuaren ondorioz behera erori zen. Hainbat ikusle hil ziren. Bideari jarraituta, Hernaniko ezaugarri garrantzitsuak direnak ikusten dira: sagardotegi eta sagarrondoak (B). Bitxikeria moduan, Cométe sarekoen oroigarria (D) ere ikusi daiteke bidean, Osiñagan. Izan ere, 1939an, II. Mundu Gerran, pilotu britaniarrak naziengandik salbatzen laguntzeko Cométe sarea sortu zen. Tartean ibili ziren hainbat hernaniar ere, pilotuei Euskal Herriko Iparraldetik Hegoaldera pasatzen laguntzeko.

Sagarrondoak loretan, edo fruitua zintzilik

Ibilbidea maiatza bukaeran eginez gero, sagarrondoak loretan ikusiko ditugu, eta irailan, sagarrak zintzilik dituztela. Udazkenean zehar, berriz, sagardoa egiteko

BILATZAILEA

Idatzi bilaketa hitza(k)

BILATU

GAURKO KRONIKA




ARGAZKIAK



IKUSI



Liburua erosteko, klik hemen



garaian, sagar usaina sumatzen da.

Ibilbidearen nondik-norakoak

I ibilbideak 8,6 km ditu, 2 ordutan egiten da, eta 150 metroko desnibela du. Ez du zailtasun berezirik, eta mendiko bizikletaz ere egin daiteke. Gomendio bat; ura eramán, bidean ez baitago iturririk.

0. Ibilbidea Portu auzoan hasten da, Lonja izeneko etxetik gertu. Hemendik Osiñaga aldera hartu behar da.
1. Osiñagako puente kolgantea ezkerrera utzi eta aurrera segi, Loidi etxeraino. Hau ezkerrean utzi eta eskuineko bidea hartu.
2. Loidi etxea ezkerretara utzita, aurrera jarraitu, eta eskuinetara kurba egiten duen gunean bide nagusia utzi.
3. Ezkerretara aldapa gora ateratzen den harrizintzarrezko bidea hartu eta aldapa gora jarraitu, 200 metrora bidegurutze batekin topo egin arte.
4. Eskubira jo, argindar posteen norabidean. Bidea jarraitu eta ukulu baten pareko pinuditik pasa. Harrizintzarrezko bidea zementuzko bide bihurtzen da hemen.
5. Bidegurutzearekin topo egindakoan, eskuinaldean Oindi ikusten da. Oindiren babesean dauden etxeetarantz jo; eskubi aldera, alegia.
6. Pardiolako bidegurutzera iristean, informazio-panelen artetik, ezkerrera hartu. Txabolategi baserri ondolik pasata, aurrera segi.
7. Lepatxikiko bidegurutzea da hau, ibilbidearen puntu altuena. Bide nagusia jarraituta, pinuen artetik beherantz doan bidea hartu.
8. Marka urdin eta zuriei jarraitu, bide nagusitik. Baserri multzo bat zeharkatu eta aldapa behera, Lastaola-berri baserriraino iristen da bidea.
9. Lastaola-berri oso-osorik inguratu, baserria ezkerrean utzita. Bertatik alendu, aldapa gora, konifera multzo baten ondolik. Asfaltozko bide gorabeheratsua jarraitu sagarrondo artetik, negutegiak ondoan dituen gune zabal bateraino.
10. Bertan dago Elorrabi sagardotegia. Parean, ibaiertzeko zuhaitzen parean, Elorrabiko puente kolgantea zegoen tokia ikusten da. Asfaltozko bidea jarraituta, Iparragirre sagardotegiaren ondolik pasa.
11. Altzueta sagardotegira iritsi aurretik bidegurutze bat dago. Bertan, ezkerretara aldapa gora doan bidea utzi eta bide nagusia jarraitu, Loidira iritsi arte.
12. Ibilbide zirkularra ixten da hemen. Hasierako puntura jo, bukatzeko.

Ibilbidea PDF formatuan: www.kronika.net



Zabaldu!

Atzera egin | Inprimatu | Norbaiti bidali



Ibilbide Sarea:
Sagardotegiak

2013ko Martxoak 8
- Udal Adierazpena

Parot doktrinari
buruzko mozioa

Saharako herriari
buruzko mozioa

Udal Baratzen
araudi orokorra

Gehigarria: Hemen
da Hernaniko
sagardo berria!

Saskien zozketa -
IRABAZLEAK

Gehigarria:
Gabonak

GEHIGARRIA: GORA
EZKONBERRIAK!

GEHIGARRIA:
AUKERA UGARI
HERNANIN, ETXEA
JANZTEKO -
SAGASTIYA

GEHIGARRIA:
OPORRETARAKO
PREST AL
DAUKAZU
IBILGAILUA?

GEHIGARRIA:
ERRUGBIA 1GO
MAILARA

GEHIGARRIA:
ZAINDU PAUSOZ
PAUSO



**BESTE
HEDABIDEAK**
TOKIKOM

GOIENA:
Kortak kirola eta gizartea
izan zituen ardatz Oñatiko
batzokian

GOIENA:
Artzain Eskolak
hamaseigarren urteurrena
ospatu du; aurten zortzi